

## INFORMAZIO OHARRA

### **Eusko Ikaskuntzak eta TOKIKOMek lankidetzak hitzarmena sinatu dute “egoera soziokulturalari eragiten dioten gaiak gizarteratzeko”**

**Bilbo, 2024ko uztailak 9.** Eusko Ikaskuntzaren lehendakariak, Ana Urkizak, eta TOKIKOMen zuzendari nagusiak, Alaitz Artolazabalek, bi erakundeen arteko lankidetzak hitzarmena sinatu dute gaur Bilbon, haien arteko harremanak sendotu eta elkarlan ildoetan sakontzeko asmoz.

Hitzarmenaren bidez, Eusko Ikaskuntzak eta TOKIKOMek elkarriketa sustatu eta sinergiak sortu nahi dituzte, edukien ezagutza sustatu eta zorroztasuna lortzeko.

Horretarako, bi erakundeek ezagutza trukatzeko konpromisoa adierazi dute, eta elkarren lan batzordeetan parte hartzeko ekarpen adierazgarriak egin ditzaketen kasuetan. Hitzarmenean jasotzeko lanen jarraipena egiteko batzorde bat ere eratuko dute erakundeok, elkarrekin egin beharreko lanak adostu zein egindakoen balorazioa egiteko.

Eusko Ikaskuntzaren lehendakari Ana Urkizaren hitzetan, “hitzarmen honek Euskal Herriko txoko anitzeko errealitateetara hurbiltzen gaitu, elkar ezagutzeko, hausnartzeko eta batera erronkei erantzuna emateko bidea zabalduko duelarik ” . Azpimarratu nahi izan du, halaber, “TOKIKOMen tokiko gertutasun hori ezinbestekoa da, gizarterearengana heldu eta eurekin elkarlanean eragiteko, guztion ongizatearen mesedetan ” .

TOKIKOMETik, berriz, “ hitzarmenak aukera emango die toki komunikabideei Eusko Ikaskuntzak hizkuntza, kultura eta ezagutzaren bueltan egiten duen lanketa gizarteratzeko, eta aukera paregabea egiten dituzten bestelako proiektu pausatuegan sarbidea izan eta toki komunikabideetan sakon aztertu eta zabaldu ahal izateko ” azpimarratu du zuzendariak, Alaitz Artolazabalek.

Hitzarmenaren eta elkarlanerako gogoaren lehen ondorio gisa, TOKIKOM Eusko Ikaskuntzak urriaren 2,3 eta 4an Gasteizen antolatu duen "[Elkartzen Gaituena](#)" XIX. Kongresuko babesle izatera pasako da.

## NOTA INFORMATIVA

### **Eusko Ikaskuntza y TOKIKOM firman un convenio de colaboración para “socializar los temas que afectan a la situación sociocultural”**

**Bilbao, 9 de julio de 2024.** La Presidenta de Eusko Ikaskuntza, Ana Urkiza, y la Directora General de TOKIKOM, Alaitz Artolazabal, han firmado hoy en Bilbao un convenio de colaboración entre ambas instituciones con el objetivo de reforzar sus relaciones y profundizar en las líneas de colaboración.

A través de este convenio, Eusko Ikaskuntza y TOKIKOM pretenden promover el diálogo y generar sinergias que permitan un mayor conocimiento y rigor de los contenidos.

Para ello, ambas instituciones se comprometen a intercambiar conocimiento y a participar en comisiones de trabajo conjuntas en aquellos casos en los que puedan realizar aportaciones significativas. Estas entidades también crearán una comisión de seguimiento de los trabajos que se recojan en el convenio, para acordar los trabajos que se deban realizar conjuntamente y valorar los realizados.

En palabras de Ana Urkiza, presidenta de Eusko Ikaskuntza, “este convenio nos acerca a las realidades de muchos rincones de Euskal Herria, y nos permitirá conocernos, reflexionar y responder conjuntamente a los retos” . Asimismo, ha querido subrayar que “esta cercanía local de TOKIKOM es imprescindible para llegar a la sociedad e interactuar directamente en aras del bienestar de todas las personas” .

Por su parte, desde TOKIKOM, la directora, Alaitz Artolazabal ha destacado que “el convenio permitirá a los medios locales socializar el trabajo que Eusko Ikaskuntza hace en torno a la lengua, la cultura y el conocimiento, y que puedan tener acceso a otros proyectos más pausados y que puedan ser analizados y difundidos en los medios de comunicación locales” .

Como primera materialización del acuerdo y del espíritu de colaboración, TOKIKOM pasa a ser parte de los patrocinadores del XIX Congreso "[Elkartzen Gaitena](#)", a celebrarse en Vitoria-Gasteiz los días 2,3 y 4 de octubre.